Plaza › Kultura

Euskal letren nazioartekotzeak 25 urte (III) → Azken idazle belaunaldiak

Lehenengoz lau idazle belaunaldi ari dira egun euskaraz idazten, eta profesionalizaturik ezagutu dute ofizioa azken biek. Baina horrek ez du esan nahi idaztea ogibide bilakatzea erraza izan denik haientzat.

Obabaren seme eta alabak

Iñigo Astiz

Aurrez sekula ikusi gabekoa da argazkia: lau idazle belaunaldi elkarrekin. Guztiak batera, guztiak idazten. Are gehiago. 70eko hamarkadaz geroztik jaiotakoek beti ezagutu dute idazle profesionalaren figura. Eta horregatik ere bada mugarria *Obabakoak*, eta horregatik garrantzitsu Atxaga. Bada liburu horren aurreko garai bat eta liburu horren osteko beste bat. Eta bigarren garai horretan hazitako belaunaldiek martxan ezagutu dute aurrez sekula ikusi gabekoa zena. Funtzionatzen ezagutu dute euskarazko hezkuntza, sendoturik heldu zaie literatur hizkuntza, erderetan ikusi dituzte euskal letrak, eta profesionalizaturik irakurri dituzte euskal idazleak. Erreferente horiekin abiatu dute bidea. Historian lehen aldiz. Baina gauza bat da idazle profesionalak ezagutzea, eta beste bat da norbera idazle profesional bilakatzea. Eta aurreko belaunaldiek sentitutako neke bera sentitu dute hor. Neke bera, edo, sikiera, antzekoa.

Harkaitz Canok (Lasarte, Gipuzkoa, 1975) opari gisa jaso zuen liburua 14 urte inguru zituenean, baina ez zuen berehalakoan irakurri. Hilabetetan izan zuen etxean, baina ireki ere ez. Zergatik? «Ez zitzaidan titulu hura batere gustatu», dio. «Oskorriren *In Fraganti* diskoa asko entzuten nuen orduan, eta bazen kanta bat *Obabatxue* izenekoa, beti saltatu egiten nuena. Diskoko abesti lasaia zen. Eta horregatik ez zitzaidan titulua gustatu». Gero irakurri zuen, eta baita irentsi ere. «Liburu hori ez bada idazle egin nauena, ia-ia». Neurri batean, Obabaren seme dela, alegia. Eta behin eta berriz irakurri du geroztik. Behin eta berriz euskaraz. Eta gazteleraz ere bai gazteleraz atera zenean. Eta baita inglesez ere, baita garai hartan ingelesik jakin ez zuten ere.

Eta horrek egin omen du idazle, zeren Canok idazle izan nahi zuen, eta erreferente argia aurkitu zuen Atxagarengan. Baina profesionaltasunak baditu bere itzalak, eta egun ere idazle den arren, Canok ez du bere burua idazle gisa aurkezten, «testu hornitzaile» gisa baizik. Berdina da egitekoa, baina garrantzitsua ñabardura. Neke baten erakusgarri.

Canok dionez, Atxagak erakutsi zion ofizioa. Atxagak, eta baita gehiagok ere. Eta zuhaitz genealogiko moduko bat marrazten du horregatik. «Asko ikasi nuen Atxagarengandik. Publiko aurrean egoteko modu hori, adibidez, baina haren ondorengo belaunaldiko kide batzuk ere izan ditut erreferente. Pako Aristi, adibidez. Bera izan zen ofizioa erakutsi zigun beste idazleetariko bat 90eko hamarkadan. Haiengandik jaso nuen bizibide baten bidea». Emulaziora jo omen zuen hasieran, eta aitortzen du bekatua. «Sariketa baterako nik neuk idatzi nuen liburu bat estrukturalki *Obabakoak*-en kopia txar baina saiatu bat zena». Emulaziora testuetan, eta emulaziora jende aurreko emanaldietan ere. «Txundigarria izan zen Atxaga ikustea *Ostruka bati buruzko lezioa* jokatzen lepo zegoen areto batean. Eta nondik dator hortik ez bada gero Lubaki banda, eta gure jende aurrean gauzak irakurtzeko joera hori?!».

Literaturaz gola sartzea

Baina Atxagak nazioartean egindako ibilbidea emulatzea, hori bai izan dela zaila. Magia trikimailu batez mintzo da Cano, kasik. «Ez nuke jakingo zehazten Atxagaren testuetan zer biltzen zen, baina bazegoen zerbait. Asmatu zuen landa mundu bat erakusten, eta haren alderdi magikoekin gainditzen kanpoan euskaldunengandik espero zitekeena, modu harrigarri eta berritzaile batean». Inprobisatu egin omen du azalpena, baina gutxi gorabehera hori da esan nahi duena. «Kanpoan beti dago espektatiba bat eta zaila da eskari horri zuk nahi duzun modu eta nahi duzun neurrian erantzun ahal izatea. Atxagak lortzen du. Topikoez edo aurreikus daitezkeen espektatiba horiez baliatu, eta gero bere golak atearen angelutik sartzeko erabiltzen ditu».

Ez dira hilabete asko Canok *Twist* eleberria gaztelerara itzuli duenetik, eta agian horregatik nabarmentzen du Atxagaren bertute hori bereziki. Izan ere, gai arantzatsua da Canoren eleberrikoa, eta beldur apur bat ere izan zion horregatik gaztelerazko itzulpenak izango zuen harrerari. Azken batean, fikzioaren ispilutik aritu arren, Lasa eta Zabalaren bahiketa, tortura eta hilketak baitira liburuaren bizkarrezurra. Baina, azkenean, uste baino erantzun hobea jaso omen du lanak. «Liburuaren irakurketa literarioa izan da, eta hori nahi nuen. Ematen du nonbait zerbait normalizatzen hasia dela».

Elorriagaren ezetza

Unai Elorriagak ez (1973, Bilbo). Ez zuen idazle izateko asmorik. Idaztekoa bai, idaztea gustuko zuelako, baina idazle izateko asmorik ez. Eta garrantzitsua da ñabardura oraingoan ere. Izan ere, hainbat urtez idazle profesional izan ostean, beste bide bat hartu nahi duela erabaki du orain. Kito dela idazketa lanbide bakartzat izatearena, eta beste zerbaitetan hasi nahi duela. Eta, paradoxikoki, idatzi ahal izateko hartu omen du erabaki hori. Aske idatzi ahal izateko. «Hori oso argi izan nuen hasieratik: idatzi nahi nuena idatzi nezakeen bitartean idatziko nuela, eta sumatzen nuenean merkatuak edo argitaletxeek edo politikak edo dena delakoak zapaltzen nindutela, eta nik nahi nuena idatzi ezinik nenbilela, orduan utzi egingo nuela». Eta puntu horretara heldu dela dio. Eskutan darabilen liburua bukatu, eta beste zerbaitetan hasiko dela. «Erdi nobela, erdi saiakera, erdi ikerketa, erdi historia lan bat den liburu batekin nabil. Biolentzien inguruko gauza bitxi bat ari naiz idazten. Eta hori ere askatasun osoz idatzi nahi nuke. Eta horretarako libre egon behar duzu. Bestela beti dauzkazu begira bata eta bestea». Eta horren ondoren kito profesionaltasuna.

Nazkatu omen da presioaz. Orain idatzi egin nahi duela dio; idatzi, enkargurik gabe. Egin nahi ez dituen gauzak egin beharrik gabe. Atera nahi ez dituen argazkiak atera beharrik gabe. Politikariek bere hitzak nola hartuko dituzten konturik egin gabe. Aspertu dela horrekin guztiarekin, eta libre aritu nahi duela. Desilusionaturik dagoen? Baiez dio. Eta galdera batez erantzuten dio gero galderari. «Merezi du gustuko duzun gauza batez nekatzera heltzea, haren inguruan dagoen hori guztia jasan behar izateagatik? Nik beste lan bat bilatuko dut, zortzi ordukoa, eta idatziko dut gero. Liburuak hiru urtean behin atera beharrean, aterako ditut hamar urtean behin. Ez da ezer gertatzen, ni gustura banago, eta lan ona egiten badut behintzat. Nahiago dut horrela aritu».

Jarraitzen du: «Idaztearena ez duzu hartzen ofizio modura, baizik eta amets moduko bat balitz bezala. Helburu moduko bat da, bai, baina gehiago da arimarako kontu bat beste ezertarako baino. Eta gure kasuan are zailagoa da profesionaltasuna, gainera, beste hizkuntza batzuek baino irakurle gutxiago ditugulako. Baina horregatik izan zen mugarri bat *Obabakoak*. Militantziaz eta gogoaz aparte, beste zerbait egin zitekeela erakutsi zuelako. Atxagak egin zuelako hori, eta, beraz, egin zitekeela erakutsi zuelako». Baina, dioenez, ez du uste idazle izatea denik idazten hasten den inoren helburua.

Atxaga eta Aristi izan ziren idazlearen ofizioa erakutsi ziguten pertsonetariko bi»

«Kanpora heltzeko zuri balio dizunak agian ez dio beste bati balio. Sarea pertsonalki sortzen da»

HARKAITZ CANO
Idazlea

«Beste lan bat bilatu nahi dut orain, eta lan osteko tarteak baliatuko ditut idazteko»

«Nire lanak itzultzen hasi zirenean ohartu nintzen bide hori aurrez ere eginda zegoela»

UNAI ELORRIAGA
Idazlea

Kanpoko estimua

Gustura irakurtzen zuen Atxaga Elorriagak. Anjel Lertxundi, Joseba Sarrionandia eta beste asko ere gustura irakurtzen zituen moduan. Baina kanpora heltzean hasi zen Atxagaren figuraren eragina sumatzen. «Halako batean etorri zitzaizkidan itzulpenak egiteko aukerak, katalunierara, inglesera, gaztelaniara, italierara... Eta orduan ohartu nintzen Atxagaren erreferentziaz, egin zuen lanaz, eta beste herrialde batzuetan jasotzen zuen begiruneaz. Hor bai ikusi nuen mundua aldatu egin zela, eta herri txiki batean idazten duen idazle batek eduki dezakeela AEBetako idazle batek besteko estimua. Kanpora joateak igarri nuen bide hori eginda zegoela, eta jendeak ezagutzen zuela euskal literatura».

Nahiko goiz jakin zuen hori, gainera, lehen liburuarekin jaso baitzuen Espainiako Narratiba Saria, 2002an; *SPrako Tranbia*-rekin. Eta bizkortu egin zuen dena horrek. Zorte ona eta zorte

38 » Karlos Santamaria zientzialari eta idazlearen obra osoa bildu du EHUk, Jakin Taldearen laguntzarekin

40 » Gabriel Aresti kultura elkarteak 'Gabrielen lekua' sentikaria estreinatuko du urrian

Euskal letren nazioartekotzeak 25 urte (III) → Azken idazle belaunaldiak

txarra izan zuela dio. Zorte ona, gaztea zelako. Eta zorte txarra, gaztea zelako. «Ez nuen ezagutzen ez kazetaritzaren mundua, ez literaturaren mundua, ez akademiaren mundua, ez argitaletxeen mundua, ez ezer. Niri berdin zitzaidan. Saria eman zidaten, eta argi nuen idatzi nahi nuena idatziko nuela. Berdin zidala batak edo besteak esandakoa. Denak iruzurti hutsak iruditzen zitzaizkidan, eta gerora konprobatu dut baietz, iruzurti hutsak direla [barreak]. Baina susmo hori neukan, eta disfrutatzera joan nintzen». Hori zen jarrera, baina ez da erraza izan.

Itzulpenen erritmo motela

Egoste motelaz mintzo da Cano, dioenez, hori omen delako itzulpenen erritmorik ohikoena. Eta bere kasua jartzen du adibidetzat. 2014an argitaratuko dute galizieraz, euskaraz 1999an kaleratutako *Pasaia blues* eleberria, kaleratu eta ia hamabost urtetara. Eta antzera *Norbait dabil sute eskaileran* poema liburuarekin ere. 2001ean argitaratu zuen euskaraz, eta irailean aterako dute nederlanderaz. Eta moteltasun hori da legea itzulpenetan, Canok dioenez.

Onartzen du Atxagak erraztu egin duela kanporako bidea, baina editore, idazle eta argitaletxeen arteko konplizitatea aipatzen du berak faktore garrantzitsuen artean. «Eraiki behar da sarea modu pertsonalean. Zuri balio dizunak agian beste bati ez dio balio. Erakundeek lagundu dezakete, bai, baina bada zerbait egileak berak egin behar duena».

Erakundetze prozesua martxan doala dio, baina luzerako zerbait dela. Eta aurrerantzean ere kosta egingo dela zure kideko den konplize bat topatzea. «Agente batek portzentaje bat kobratzen du, eta horregatik bera beti saiatuko da argitaletxe handiekin kontratuak lotzen, baina paradoxikoki argitaletxe handi horiek ez dira beti izaten idazlearentzako onenak. Erradarraren azpian badira argitaletxeak, agente bati ekonomikoki etekinik emango ez diotenak, baina idazle bati interesatuko zaizkionak. Bere mira beste bat delako. Ez soilik ekonomikoa». Eta ezkontza ez da beti erraza.

Bihar: Erakundetze prozesua.

JAVIER ETXEZARRETA / EFE

↓ Inkesta

Zer nabarmenduko zenuke euskal literaturaren nazioartekotzeaz?



«Gure liburuek kanpoan ibilbide katakunbarioa egiten dute gehienetan»

Aingeru Epaltza
Idazlea

«Idazle guti batzuena da nazioartekotzea. Beharbada horixe da gure tamainako literatura batek gehienez ere amets egin dezakeena: hirulau idazleren lanak atzerriko zirkuitu normalizatuetan edukitzea. Gainerakoetan, gure liburuek, kanpora ateratzen direlarik, ibilbide katakunbarioa egiten dute: argitaletxe tikiak, zirkuitu alternatiboak eta abar. Ez dakit hemengo argitaletxeek sinesten duten beraiek ateratzen dituzten produktuetan. Frankfurteko azokan (Alemania) izana naiz Eusko Jaurlaritzak eta editore nahiz idazleen elkarteek antolatutako bidaietan. Argitaletxeetako ordezkarietariko bati galdegin nion ea gure liburuak 'saltzera' ote zihoan Frankfurtera. Saltzera ez, baizik eta 'erostera' zihoala erantzun zidan harriturik. Iaz, Dolores Redondok nazioarteko dozena erdi argitaletxeri saldu zizkion Frankfurten bere *Zaindari ikusezina*-ren eskubideak. Euskarazko nobela parrasta daude hura baino hobeak. Hark saltzailea izaki ona».

«Besteen artean egoteak ez du inolaz ere esan nahi besteen pareko izatea»

Ur Apalategi
Idazle eta literatur kritikaria

«*Obabakoak*-en nazioarteratzeak euskal literaturaren historia bitan zatitu du, modu batean bederen. Euskara mundura jalgi da azkenean, Bernat Etxepareren profezia gauzatuz. Haatik, urteotan ohartuz joan gara besteen artean egoteak ez duela inolaz ere esan nahi besteen pareko izatea, baizik eta nazioarteko merkatuaren begirada heterodefinitzailearen zama bizkarreratzea. Frantzian ezagutzen zen kantari espainiar bakarra luzaz Julio Iglesias izan zen. Hortaz, espainiar kantagintza Julio Iglesias zen. Gure literaturarekin —eta beste literatura txikiekin— halako zerbait gertatzen da nazioartean. Ikusezina izateak dakarren malenkonia solipsistatik exotiko-erregional izateak eragiten duen atsekabe postkolonialera igaro gara. Atsekabe ezin interesgarriagoa, bestalde, zeren gure eginkizun literarioaren ikuspegi teleologikotik atera gaitu behin betiko. Jada ezin dezakegu idatzi bukaera zoriontsu baten ametsak bultzaturik. Mandaturik gabe geratu da euskal idazlea».

«1990ean Glasgowen hasi nintzen ulertzen nazioartekotzea zer zen»

Arantxa Iturbe
Idazlea eta kazetaria

«Denborak lausotu egiten du oroimena, baina gogoan dut lehendabiziko aldiz ematekoa zutela, Europa izena jarri ziotela eta bolo-boloka zebilela *Obabakoak* izango zela irabazle. Nazioartekotzeko lehen urratsa, europartzea. Gogoan dut Glasgowko Unibertsitatean izan zela ekitaldia, ni han nintzelako, gutxitan egokitu zaidan luxuzko eginbeharrean: bertatik kontatzeko. Asko kostatu zitzaien erabakia epaimahaikoei. Erdiek Atxaga zuten gogoko, eta besteek, Saramago. —Berdinketa hausteko gai zen bakarrak hirugarren hautagai bati eutsi zion. Hala dut gogoan—. Botazioak errepikatuta ere, aldaketarik ez. Azkenean, ez Atxaga, ez Saramago. Jean Echenoz. *Lac izeneko* liburua. Galdetu nion Echenozi ea arbaso euskaldunik bazuen kazetariok nonahikoak izanda ere, nonahiko zernahi topatzeko ahalegin patologikoak eraginda. Ezetz, berak. Glasgowen 1990ean hasi nintzen ulertzen literaturaren nazioartekotzea zer den. Uste dut».